

SANTIO JAIK ARANON

Asteburuan beroketak eginda, ostegunean hasiko dira Santioak Aranon

Zubillak eta Arostegik irabazi zuten Pelota Txapelketa, 22-18, eta kotxe zaharrek ikusmina jarri zuten. Ostegunean, festa hasiera, Arano-Goizueta pelota desafioa, herri kirolak, Tapia eta Leturia...

SANTIOAK gainean dira, eta asteburu honetan zuten preludea edo beroketak Aranon. Pelota Txapelketa bi urnietarrek irabazi zuten, Zubillagak eta Arostegik, bi aranoarren kontra: Gascon eta Elortza. 22-18 irabazi zuten kanpotarrek, partidu luze eta borrokatua. Inork ez zuen tanturik galdu nahi, eta partidua asko luzatu zuten. Azkenean, irabazi beharrez, gehien arriskatu zuenak galdu zuen partidua. 3-4 postuak ere jokatu ziren eta Kerejeta eta Otxotorenak irabazi zuten, 22-8, Unai eta Txapartegiren kontra.

Eguerdia ondo sartuta iritsi ziren motor hots batean kotxe zaharrak. Aranon urteroko ohitura izaten da ikusmina jarria zegoen, iritsi zirenerako. 1933ko kotxe bat izango zen zaharrena, telebistan bakarrik ikusten diren horietakoa, baina baziren haren tankerako modernoxeagoak, eta dotore-dotoreak ere bai, norbait haundiarentzat egindakoak. Aurten 12 bat kotxe eta moto izan dira.



Pelotako sarituak, antolatzaileak, eta sari-emaile gazte gazteak.

Itxaferoa hasteko, zomorro jantzian atera ziren lehenengo emakumeek Santio jaiak ofizialki ostegunean hasiko dira. Meza bukatu, eta 12:00etan botako dute jai hasierako itxaferoa. Aurten omendu egingo dituzte Iñoteetan zomorro

jantzian atera ziren lehendabiziko emakumeak; lehen gizonen ohitura izaki. Arano eta Goizuetako pelotarien arteko desafioa eguerdian, eta arratsaldean, Nazabal eta Azurmendi aizkolariak eta iparraldeko jokoak. Tapia eta Leturiarekin trikiti festa, eta

koadrilen arteko afaria. Ordu berean, umeentzat, ilargipeko zinea dute.

Hurrengo egunetan ere, hainbat ekitaldiren artean izango dira, ostiralean herriko produktuen azoka, larunbaten arkume jatea, eta igandean umeentzako ekitaldiak. ||

UZTAILAK 25 SANTIO

11:00 Meza
12:00 Jai hasierako itxaferua Umiantzat bonba japonesak eta buru haundik
12:30 Arano-Goizuta arteko pelota partidua
18:00 Herri kirolak. Aizkoran: Azurmendi ta Nazabal. Iparraldeko jokuk.
20:00 Tapia eta Leturiakin laun arteko triki festa
22:00 Afaria elkarrekin
22:00 Ilargipeko zinia umiantzat

UZTAILAK 26 - SANTA ANA

11:00 Meza
Onorian Hamaikatakua
13:00 Pelota partidua afizionatun artian
14:00 Jubilatun bazkaya ta bertsolayak gero:
Unai Agirre ta Xabier Legarreta bertsolariakin
18:00 Artisau azoka karpan
19:00 Tortilla txapelketa ta herriko sardo eta produktun probaketa
22:00 XXXI. Mus txapelketa San Roke elkartian

UZTAILAK 27

14:00 Arkume jatia: bertako arkumea, bertako entsalada, bertako postria...
Bazkalondoren Kantu saioa fanfarrearekin
19:00 Bertsolarik:
Sebastian Lizaso
Iker Zubeldia
Julio Soto
Aitor Mendiluze.
Afalondun Dantzaldiya Elepunto DJarekin

UZTAILAK 28

UMEEN EGUNA
10:00 Meza
10:30 Umian partidua
Segidan Arano eta Goizuetako dantzariak
15:30 Puzgarrik ta ume jolasak
19:00 Arno ganadutegiko azindak umiantzat.



Urkizu eta Esnaola finalerako sailkatu dira.

Bi partidu Hernanin, eta Ojuelek finala Erreterian

Buruntzaldea Txapelketako bi finalerdi jokatu dira gaur, 19:00etan.

PAUL Ojuelek bere aurten-go 6garren finala jokatu du gaur, Erreterian Torneoan. Irusta bizkaitarra izango du atzean, eta orain arteko bi partiduetako gisan jokatu den badu Irustak, oso posible da Ojuelek beste txapel bat ekartzea Hernanira. Dorronsoro eta Arratibelen kontra ariko dira, 19:00etan hasiko den jaialdiko bigarren partidua, Erreterian. Hernaniko pelotarien 32garren finala da hau aurten.

Buruntzaldeko Txapelketa aurrera dioa

Bi finalerdi ikusteko aukera izango da gaur kiroldegian, 19:00etatik aurrera, Buruntzaldeko Txapelketakoak. Kadeteetan, Arrue-Aizpuru ariko dira, Oiarbide-Usandizagaren kontra; jubeniletan, Altuna anaiak, Chiapuso-Aizkorretaren kontra.

Finalerako pasea lortu dutenak: Urkizu eta Esnaola hernaniarrak eta Odriozola eta Errazkin, nagusietan; Azpiroz eta Aburuza jubeniletan; eta Pagola eta Rodriguez hernaniarrak kadeteetan. ||

Zure bizikleta denda
AZKEN KILOMETROA
Jarraitu azken berriak Facebook-en

ezkati
ileapaindegia
Iuneg. 4
Hernani
943 55 66 56
Hartu ordua

Allianz ASEGURUAK
biurteko -
irriburua -
otona -
komertzioa -
enpresa -
ardura zibila -
luzerako seguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK ● Eguz: Castilla Urbieta 7 - 943 552941 ● Gauez: Aldabe Perkaitezgi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Uda-udako giroa gaur ere. Eguzkia nagusi goietan, eta sargori puntua izango dugu egun guztian. Iluntzean ere ez du ia feskutuko. Min.19° / Max.29°
BIHAR Bihar ere bero hasiko dugu eguna, eta labe sentsazioa izango dugu, eguzkiari esker. Iluntzean frontea sartu, euri arriskua, eta freskatu egingo du. Min.19° / Max.26° (euskaime)

MADALENA JAIK LIZEAGAN

Umore onean bukatu dute Lizeagan, umore onean hasitakoa

Saioa eta Aihekoren balkoiak irabazi du balkoi lehiaketa, eta tortilarik onena Jagoba Galdosena izan da; originalena, M^a Jesus Zabalorena.

JOAN dira Madalena jaiak, eta etorri bezala joan dira, gainera: umore onean. Horixe izan liteke atzoko bi egun horiek ondoen deskribitzen dituen. Atzo umeak ekin zioten festari, eta eguerdi partean hasi ziren helduxeagoak festara eransten. Batzuk bezperako festa nahikoa luzatuta zebiltzan, eta ederki etorri zitzaizen atsedean txiki hori. Txarangak lagunduta egin zuten herri poteoa, eta ondoren, herri bazkaria. Ia 100 lagun bildu ziren bertan, eta bazkal garaia bezain ederra edo hobea, ondorena: jolasak, jokoak eta musika! Modesto Ordokik berak bakar bakarrik jarri zuen festa, eta ondo irabazi zuen atzoko ogia. Dantzaldiarekin bukatu zen festa.



Ederki pasa zuten auzotarrek bazkalondoan.



Umeek ere ez zuten denbora alperrik galtzeko.

Jesús Lopez tokan, eta Javi Pavón botean

Lehiaketa dezente izan dituzte aurten ere Lizeagan. Balkoi lehiaketa Saioak eta Aihekok irabazi dute. Tortila lehiaketan, lehen saria Jagoba Galdosek, bigarrena Alejo Luengok eta originalena Maria Jesus Zabaloren tortila, ia lau pixu zituen. Horrez gain, toka eta botea ere izan dira, eta hor onenak: Jesús López tokan, eta Javi Pavón botean. ||

ERREMONTA - KUTXA SARIKO PREBIA

Urtasun aurrera, Agirrezabala aixa menderatuta

Etxeberrria IVaren kontra jokatu beharko du ostegunean. Bihar, Matxin VIak eta Endikak jokatu behar dute.

BURUZ Buruko Kutxa Saria abuztuan hasiko da, eta han onenekin jokatu ahal izateko postu bat dago jokoan. Postu horren bila ari dira uztailean, erremonteko promesak, eta Urtasunek beste pausu bat eman du asteburuan, Agirrezabalari aixa irabazita, 30-15. Kutxa Sariko prebia deitzen zaio orain jokatzeko ari diren faseari, eta ari da bukaerara

iristen. Urtasunek, atzo irabazita, ostegunean berriz jokatu beharko du, eta oraingo honetan ez du nolana hiko aurkaria izango: Etxeberrria IVa alegia. Etxeberrria IVa da gazteen artean joko puntu honentsuenean dagoena.

Kutxa Sariko prebian, beste adarretik datozenek bihar jokatu dute Galarretan: Matxin VIak eta Endi-

kak, alegia.

San Miguel eta Juanenea, elkar ondo hartuta

Larunbatean ikusmina zegoen estelarrean zer gertatuko, San Miguel eta Juanenea gazteak elkarrekin lehenengoz jokatzeko baitzuten. Primeran hartu zuten elkar, eta 40-35 irabazio zioten Etxeberrria IVa eta Ioni. ||

❖ BIDE MOZKETA

Floridako Benta Berriko tunela itxita

Iberdrola enpresa kablea pasatzen ari da, eta obra horientatik ostiral arte itxita dago Florida auzoko Benta Berriko tunel txikia. Jakinarazi dute, tunela itxita dagoela bai trafikoarentzat eta bai oinezkoentzat. Tunel hori bertako auzotarrek ibiltzen dute batipat, Hernanitik irteera azkarrena hori dutelako. Ostiraletik aurrera berriz ere irekita izango dute. ||

❖ SAN INAZIOAK SANTA BARBARAN

Bazkari txartelak salgai

San Inazio eguna urtero antolatzen da Santa Barbaran, eta aurten ere egun pasa polita prestatu du Morkaiko taldeak. Bazkaria ere izaten da (marmitakoa, txuleta...), eta txartelak salgai daude, 25 euroan, Aralar eta Kitto tabernetan. ||

❖ SAGASTIYA

Azken eguna, Sagastiyako 88 etxebizitza babestuetako zozketan sartzeko

Etxebiden alde zurretik apuntatuta daudenek, gaur dute azken eguna Sagastiyako 88 etxebizitza babestuetako zozketan apuntatzeko. 88 etxebizitza horietatik erostekoak dira, ez alkilerrekoak. Promozio horretan sartzeko, bi modutara eman liteke izena: www.etxebide.euskadi.net helbidean, edo Etxebideko egoitzan, Donostiako Andia kalean, 13garren zenbakian. Azken eguna, gaur. ||

◆ MENDIRIZ MENDI

Azken eguna, mendi-lizentziak eskatzeko

Mendiko lizentzia behar dutenek gaur dute azkeneko eguna eskaera egiteko, Mendiriz Mendi elkarte bulegoan, Iturregi plazan. Ordutegia: 20:00etatik 21:00etara. ||

◆ SASKIBALDIA

Saskibaloian ikasteko aukera asteazkenean

Saskibaloia probatu nahi duten haurrek aukera dute asteazken honetan, 19:00etatik 21:00etara, kiroldegian. Kontzeptu basiko batzuk ikasi, eta saskibaloian gozatzeko aukera izango du inguruetan denak. 1998-2001 urteetan jaiotako haurrentzat da. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzeko duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† LOURDES SOLÉ SAMPERA
 ANDREA
 (Jose Antonio Cuestaren alarguna)
 Larunbatean hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak
 eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Malu eta Gene, Josean eta Arantza, Joni eta Elena; bilobak: Maider eta Mikel; anai-arrebak: Marcela Solé, Maria Luisa Gorrindo eta Fermin (†) eta Luisi (†); ilobak, lehen-gusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2013ko uztailaren 22an

OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da goizeko

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

TXOLLOAI, 120.000€, Victor Hugo kalean. 2 gelatoko pisua, igogailua, orain dela 10 urte eraberritua. Deitu: 699 450 815

Akordeioa salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)